

NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

- **Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua**
- **Negoioen Kudeaketan eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetan Gradu Bikoitza**

Ikasleen mugikortasun programen bidez hainbat helburu lortu nahi dira, izan ere horien bidez ikasleek beste errealitate batzuen berrik jakiteko, esperientziak elkarri trukatzeko edo, gero eta mundu komunikatuago honetako nazioarteko integrazioa lortzeko aukera izango dute.

Nazioarteko mugikortasun programa hauek egin behar dira:

- Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua: 4. maila. Eskaera 3. mailan egiten da.
- Negoioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza: 5. Maila. Eskaera 4. mailan egiten da.

Programa bakoitzean, norakoen zerrenda dago, urterik urte aldatu ohi dena eta horietako edozeinetara joan daitezke gure fakultateko ikasleak (zerrenda GAUR aplikazioan dago). Elkartrukea lauhileko edo ikasturte osorako izan daiteke (gradu bikoitzaren kasuan soilik lauhileko bat) eta 4. mailako (gradua) eta 5. mailako (gradu bikoitza) irakasgaiak egitean datza, GRALen izan ezik, beste destino horretan. Helburuko unibertsitatean lorturiko nota ageriko da gero gure ikastegian izango duen espedientean.

Azpimarratu behar da elkartrukeko programan parte hartzeko zenbait tramite egin behar direla, eta ikasleak berak egin behar dituela nahiz eta horrek eragozpenak sortu. Hau da: ikasleak informazioa egiaztatu beharko du beste unibertsitatearekin, agian beste unibertsitatearekin harremanetan jarri, mugikortasuneko koordinatzaile akademikoarekin akordio bat zehaztu, behar izanez gero akordio hori egokitu gerora eta abar. Espero izatekoa da eragozpen horiek guztiak beren ordaina izatea kanpoko unibertsitate batean egonaldia eginda, aukera horrez baliatuta eta gozatuz.

1. BALDINTZAK

LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA

1. Eskaera egiteko unean 3. mailan matrikulatuta egotea.
2. Lehenengo eta bigarren mailako 105 kreditu gaindituta izatea.
3. Hizkuntzak baloratuko dira (hizkuntzaren bat jakitea baldintza ez bada).

NEGOZIOEN KUDEAKETAN ETA LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAN GRADU BIKOITZA

1. Eskaera egiteko unean 4. mailan matrikulatuta egotea.
2. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako 202 kreditu gaindituta izatea eskaera egiteko unean.
3. Hizkuntzak baloratuko dira (hizkuntzaren bat jakitea baldintza ez bada).

❖ Gradu bikoitzaren mugikortasuna 5. mailako lehen lauhilekoan izango da.

2. ESLEIPENERAKO irizpideak

1. Espediente akademikoa.
2. Berdinketa badago: gainditutako kreditu kopurua.
3. Hizkuntzak jakitea baloratuko da (baldintza ez bada).

3. XEDE UNIBERTSITATEAK (GAUR)

Gure fakultatearekin, berariazkoak (Leioa):

ERASMUS	AMERIKA LATINOA	BESTE NORAKOAK
- Lille (Francia) - Rennes (Francia) - ISSIT Intercultural School (Paris - Francia) - Bolonia (Italia) - Bari (Italia) - Urbino (Italia) - Sassari (Cerdeña-Italia) - Setubal (Portugal) - Lusófona do Porto (Portugal) - Lucian Blaga de Sibiu (Rumania) - Czestochowa-University (Polonia)	- Instituto Politécnico de Monterrey (Mexico) - Universidad Católica de Uruguay - Kupo orokorrean beste norako batzuk **	- Kupo orokorrean beste norako batzuk **

** Badira kupo orokorrean beste norako batzuk, eta horietarako eskaria UPV/EHU ko ikasle guztiek egin dezakete (GAUR aplikazioan, “plazak partekatzen ditu”, atalean “Bai” markarekin agertzen direnak dira).